

Ospakizunaren alboan, aldarrikapena

Egunari lotutako adierazpenetan, egiteko asko dagoela gogoratu dute erakundeek

Foru Aldundiak zerbitzu guztiak euskaraz eskainiko ditu 2015erako, bere jardueran euskarari lehenetasuna emanaz

:: **N. AZURMENDI**

DONOSTIA. Euskaltzaleen Topagunearen eskutik Euskal Herriko herri ugari zabaldu den ekimenak 'Euskarak 365 egun' dituela gogoratu badu ere, atzokoa aukeratu zuten erakunde gehienek, Euska-

raren Nazioarteko Eguna alegia, adierazpen instituzionalen bitartez ospakizuna eta aldarrikapena uztaizteko. Izan ere, bi osagai horiek izan dira nagusi Gipuzkoako Batzar Nagusiek zein Foru Aldundiak plaza-ratutako adierazpenetan.

Batzar Nagusiek zioten ospatzeko eguna zela atzokoa, «baina baita konpromisoak hartzeko eguna ere». Ospakizuna baliatu zuten «berezi-ki, euskararen erabilera aldarrikatu eta sustatzeko. Guztiona den hizkuntza, gizarte kohesiorako giltza bilakatu, aniztasunean oinarritu-

tako herria eraikitzeko». «Gipuzkoako Batzar Nagusiek urteko egun guztiak euskararen egun bilakatu nahi ditugu, -irakur daiteke adierazpenean-, pertsona guztien hizkuntza-errespetuan oinarrituta eta pertsona bakoitzaren atxikitze naturala eta bakoitzaren herritar izateko molde partikularra errespetatuz. Beraz, euskararen normalizazioa aldarrikatzeko eguna dugu batez ere, hau da, euskal herritar guztiontzat eguneroko arlo denetan euskara ohiko eta lehenesteko hizkuntza izan dadila aldarrikatzeko»

«Euskara normalizatuko bada hizkuntza politika sendoa eta herritarren aktibazioa behar ditu ezinbestean» adieraziz, ideia orokorrak sei konpromiso zehatzetan gauzatu dituzte Batzar Nagusiek.

Besteak beste, euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzera konprometitu dira; euskara administrazio osoan, baita Batzar Nagusietan ere, lan eta zerbitzu hizkuntza bihurtzera eta egunerokotasunean gehiago erabiltzera; kontratazio publiko eta lehiaketa guztietan hizkuntza-irizpideak txertatu

eta garatzera, eta euskararen aldeko bilgune zabalak -euskalgintza, eragileak, sektore desberdinerako erakundeak, instituzioak - sortzen eta gorpuzten laguntzera. Azkenik, «Gipuzkoako Batzar Nagusiek, euskaraz bizi ahal izateko hizkuntza-politika orekatua bideratzeko konpromisoa adierazten die herritarrei».

Foru Aldundia, Irunen

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko eta Gaztezuoren batera antolatu duen 'Ika Mizka. Eta hik, nola bizi dink euskara?' egitasmoaren azkeneko saioan parte hartzeko, Donostiako Foru jauregitik urrunduta Irungo Ducorau jauregira joan zen Gipuzkoako Foru Aldundia, Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako campusaren egoitzara, han amaitu baitzuten bertako ikasleek eta hainbat aurpegi ezagunek gazteen artean euskararen inguruko gogoeta sustatu nahi duen ekimen honen bigarren edizioa.

Hantxe egin zuten foru diputatuek asteroko kontseilua, eta han aurkeztu zuen Larritz Ugarte bozeramaileak Euskararen Nazioarteko Egunari lotutako adierazpen instituzionala, ENE «ospatzeko eta aldarrikatzeko eguna da» dioena. Ospatzeko, «euskararen gizarte erakundeek, euskaltzaleek eta erakunde publikoek lan eskerga egin dugulako euskararen normalizazioaren alde, eta hizkuntza asko ez bezala bizirik iritsi delako gaur egunera».

Baina «euskararen normalizazioa aldarrikatzeko eguna da batez ere, hau da, euskal herritar guztiontzat eguneroko arlo denetan euskara ohi-

Euskara «gizarte kohesiorako giltza» bilakatu behar dela diote Batzar Nagusiek



Zer pentsatua eman zien euskarak atzo Irunen gazteei. Foru Aldundiko ordezkariak eta aurpegi ezagunak izan zituzten mahaikide. :: **DE LA HERA**

Eusko Ikaskuntza concede a 'Euskaltzaleak' de Buenos Aires el premio Ene

Mintzanet, por su parte, celebra su primer año premiando a dos de los participantes en este foro de conversación virtual

:: **N. A.**

SAN SEBASTIÁN. Eusko Ikaskuntza, la entidad que en 1949 tuvo la idea de conmemorar el Día Internacional del Euskera, lo celebró ayer concediendo el premio ENE a la asociación Euskaltzaleak-Escuela de Lengua Vasca, de Buenos Aires. Esta

asociación fundada en 1944 para mantener y fomentar el euskera en Argentina, se ha impuesto entre las 14 candidaturas presentadas.

Por otra parte, Eusko Ikaskuntza valoró muy positivamente mediante un comunicado la acogida que ha tenido su campaña 'Euskara pil-pilean', que puso en marcha en octubre para animar a euskaldunes de todo el mundo a que hablen entre ellos en euskera a través de internet. Todos los participantes en la campaña recibirán un obsequio y serán inscritos en Mintzanet, un foro de 'mintza praktika' virtual pro-

movido por numerosos agentes institucionales y sociales del mundo del euskera en el que ya participan más de 200 personas, que ayer celebró el Día Internacional del Euskera y su primer aniversario con la entrega en San Sebastián de los primeros Mintzanet Sariak.

En la entrega de premios, que tuvo lugar en el museo de San Telmo, donde Bagera Euskara Elkarteak organizó un Mintzodromo virtual, se reconoció «el esfuerzo y el trabajo» que han realizado a lo largo de este año un bidelaguna (ayudante) y un bidelari (ayudado). Los premiados han sido Izaskun Arrieta, de Azkoitia y de 47 años, y Joserra Onandía, nacido en Getxo hace 68 años. Arrieta es bidelaguna desde que comenzó este proyecto, empezó hablando con tres personas y ahora lo hace con dos. El mejor bidelari, Onandía, hace pocas semanas se ha convertido él mismo en ayudante.

Osakidetza aprueba su segundo plan de euskera

:: **AGENCIAS**

SAN SEBASTIÁN. El Consejo de Administración de Osakidetza ha aprobado ayer el segundo plan de euskera para el Servicio Vasco de Salud, coincidiendo con la celebración del Día Internacional del Euskera.

El objetivo principal de este plan es garantizar la presencia y el uso del euskera como «lengua de servicio, oral y escrita, tanto en las relaciones externas como en las relaciones internas», de forma que pueda ser lengua de trabajo en los servicios «donde se den las condiciones necesarias para ello». Este segundo plan, en cuya elaboración

han participado dirección, profesionales y representantes sindicales de Osakidetza, pretende que se respeten los derechos lingüísticos de los vascoparlantes y que todo ello redunde en una mejora de la calidad del servicio. Será presentado formalmente mañana.

El 18 de noviembre el Parlamento Vasco acordó que Osakidetza debe dar prioridad al conocimiento del euskera en las contrataciones de eventuales y tiene que solicitar criterios lingüísticos a las empresas proveedoras. La iniciativa fue aprobada con los votos de PNV y EH Bildu; el PP votó en contra y el PSE respaldó sólo algunos puntos.